



Bizkaiko 35 udalerrik sustatu eta 10.000 ale baino gehiago banatuko dira

16 eta 26 URTE BITARTEKO GAZTEEI ZUZENDUTAKO SAREKO EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA BERRARGITARATU DUTE

(Bilbo, 2009ko urtarrilaren 21a.- Kanpoko Komunikazio eta Harremanetarako Bulegoa).-

2006ko abenduan kaleratu zen lehen aldiz katalogoa Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) osatu zuen, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundi eta Alkarbideren laguntzaz eta Euskaltelen babesaz. Izandako arrakastaren ostean, UEUkoek lehenengo argitalpena eguneratu eta osatu dute – oraingo honetan Arabako Foru Aldundiak ere parte hartu du– eta 2009an Bizkaiko 35 udalerrian 10.000 ale baino gehiago banatuko dira.

Sareko Euskarazko Produktuen Katalogoa 16 eta 26 urte bitarteko gazteentzat prestatu da eta helburu dauka Interneten dauden euskarazko produktuei buruzko informazioa gazteengana hurreratzea. 81 produktu bildu dira katalogo honetara, bi atal nagusitan banatuta:

Lehenengo atalean, **Sarean Blai** izenekoan ondoko honi buruzko informazioa agertzen da: euskarazko softwarea, baliabideak, blogak euskaraz egiteko tresnak, denbora-pasarako jolasak, txateatzeko guneak, mugikorrenzako erremintak, musikari buruzko web guneak, aldizkari elektronikoak, sareko irratiak, informazio orokorreko guneak, zinea zein sukaldaritzari lotutakoak eta beste hainbat gune.

Bigarren atalean, **Ikusi eta Ikasi** izenekoan, hezkuntzarekin lotutako baliabideen informazioa batu da. Besteak beste, apunteak, liburuak eta ariketak dituzten guneak, hiztegiak eta entziklopediak, datu-baseak, liburutegietako katalogoak eta ikas-baliabideak daude orriotan.

Liburuxka eta CDa

Sareko Euskarazko Produktuen Katalogoak liburuxka formatua dauka, eta CDa daroa barruan. CDak liburuxkan ageri den informazio guztia dakar, baita webguneen zuzeneko lotura ere, nabigazioa errazte aldera.

Euskaraz bizitzen laguntzeko asmoz egindako katalogo hau Bizkaiko 35 udalerrian banatuko da. Hala, udalerri hauetako gazteek jasoko dute katalogoa: Alonsotegi, Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Enkarterriko Udalen Mankomunitatea, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Gordexola, Laukiz, Leioa, Lemoa, Maruri-Jatabe, Muskiz, Ortuella, Sestao, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea, Zaldibar eta Zierbena. Guztira, 10.000 ale baino gehiago banatuko dira.



Sareko Euskarazko Produktuen Katalogoa hainbat erakunderen ekimena da. Egitasmoaren sustatzaileak Bizkaiko 20 udaletako eta 2 mankomunitateko euskara zerbitzuak dira (guztira, 35 udalerri); Udako Euskal Unibertsitateak bildu du kaleratzen den informazioa; eta Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundi, Alkarbide eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzaz argitaratu da. Azken erakunde horrek lehen aldiz parte hartu du proiektu honetan.